



'Tolosa hiri euskalduna' kanpaina aurkeztu dute

HELBURUAK ▶ «Euskararen erabileran sakontzea eta kaleko giroa euskalduntzea» ditu helburu

GALTZAUNDI ▶ Galtzaundi Euskara Taldeak sentsibilizazio kanpaina, hitzaldiak eta ekitaldiak eratu dit. ▶ 3



Kuttuna haur eskola zabaldu dute herrian

ZIZURKIL ▶ Bi urte arteko haurrak joaten dira Kuttuna haur eskolara, Pedro Mari Otaño ikastetxearen eraikin berean. Egun sei haur joaten bi arduradunen zaindaritzapean dira eta maiatzean datorren ikasturterako matrikulazio epea irekiko dute, irailetik aurrera haurrak eraman ahal izateko. 07:30etik 18:30era dago ire-

kita haur eskola, baina gehienez zortzi ordurako eraman daiteke haurra bertara. 16 astebete izan behar du gutxienez haurrak eraman ahal izateko. Bi tarifa daude, ordu kopuruen arabera. Hurrei eskola eta kanpoko orduen jarraipen osoa egiten zaie gurasoen laguntzaz. IMANOL GARCIA ▶ 5

PATXI ZABALETA ▶
ARALAR



LANDER FDZ. ARROYABE/BERRIA

«EAEko garapen sozialaren bermea gara»

Koordinatzaile nagusia da leitzarra ▶ 2

24 ETXEBIZITZA ORMAIZTEGIN

GABIRIALDE KALEA • ORMAIZTEGI
ORMAIZTEGIKO GUNEAN,
KALITATERIK ONENENKO ERAIKUNTZAK
DUPLExAK LORATEGIAREKIN
2 eta 3 LOGELETAKO ETXEBIZITZAK
GARAJEAK

INFORMAZIO GEHIAGORAKO
INMOBILIARIA BITXOR, S.L.
Tlf.: 943762758
Burdineta plaza 6, behea • BERGARA

Telebistako SPOTAK	APIRILAK 10, IGANDEA	etb 2	12.55tan	BOZKATU	 EHAK	DEMOKRAZIA eta BAKEA	BIHAR MITINA DONOSTIA arratsaldeko 6etan ATANOI PILOTALEKUAN
		etb 1	13.55tan				
	APIRILAK 12, ASTEARTEA	tve	19.45tan				
		etb 1	00.00tan				
		etb 2	00.30tan				
	APIRILAK 13, ASTEAZKENA	tve	19.45tan				
	APIRILAK 14, OSTEKUNA	tve	19.45tan				
<p>DIRU LAGUNTZA / AYUDA ECONOMICA Euskadiko Kutxa / Caja Laboral 3035 0083 20 0830096411</p>							

PATXI ZABALETA ▶ ARALAR ALDERDIKO KOORDINATZAILE NAGUSIA

«Erabakitzeke ahalmenaren eta garapen sozialaren bermea gara»

Patxi Zabaleta Aralar taldeko koordinatzaile nagusia da; Nafarroako Parlamentuko legebiltzarkidea da bera



LANDER FDEZ. ARROYABE / ARGAZKI PRESS

JAIONE ASTIBIA

EAEn, hilaren 17an eginen dituzten Legebiltzarrerako hauteskundeetan, lehendabizikoz hartuko du parte Aralar taldeak. Patxi Zabaleta, alderdiko koordinatzaile nagusi leitzarrearekin egon da HITZA.

Hauteskunde hauekiko lema «erabaki ezkerretik» duzue.

Bai, batetik abertzaletasuna du oinarri: herriaren erabakitzeke ahalmena. Eta bi, ezkerretik egindakoa. Abertzalegoak ezkerreko ikuspegia behar duela adierazi nahi dugu. EAJ-EAK erditi eskuinerako politika egiten dute, eta EB ez da gai izandu beste ikuspegi bat aintzineratzeko.

Aurkeztu dituzuen zerrendaburuak defini itzazu.

Jatorri desberdinetakoak dira hirurak. Ezenarro (Gipuzkoa), ez da inoiz Batasuneko mugimenduetakoa izan. Bere hasia politika gintzan, Aralarren egiten ari da; Azkarraga (Bizkaia) ezker mugimenduetan ibilitakoa da; Aldekoa, berri, HBko militante historikoa da, Altsasuko mahai hartatik politikagintzan jarraitzen duen bakarretakoa, nirekin batera. Hirukote honek eskaintzen du berrikuntza eskal politiki-

kan: mezu berriak eta desberdinak igortzen dituzte.

Zer aurreikuspen egin duzue taldearen emaitzen inguruan?

Aralarren helburua da EAEko parlamentuan ordezkariak apal baina duin batekin egotea; berrikuntza sortzea politika sozialean, ezkerretik; Aralarrek bermatuko du kontsulta politikoa eginen dela, ikusita EA-EAJren jokabidea zein den, ezker abertzalearen presentzia bizkorrik gabe, ez da gauzatuko, bestela. Bestalde, eskal politikagintzan beste eredu batekin jokatzeko bidea ireki nahi dugu.

Zein dira Aralarren kanpainak gako eta ardatzak?

Politika soziala egitea, honi inbertsio publikoa gehituz. Legealdi bakarra ez da nahikoa izango Europako gastu sozialeari iristeko, baina bidean jarri behar dugu. Eta bakegintza: politikoki, aurrerapauso tinko, bizkor eta duinak emanez. Politika parte-hartzailea egitea, parlamentuan eta kanpoan geldituko direnekin ere, zuzenki bat egin beharko zukeena.

Zehaztu, gizarte politikan zer eskaintzen duzue?

Atal asko ditu, baina esaterako pentsioen gehigarriak. Asegu-

rantza sozialaren kudeaketa eskuratu beharko litzateke; Langabetuei babes politikoa eskaini, baita gazteentzat ere, errentan ematen diren etxebizitzak gehituz eta hobetuz... Harreman laboralak ere babestu beharrekoak dira. Eduki sozialak ezinbestekoak dira. EA-EAJ-EBren gobernu atzean gelditu da, Nafarroarekin eta Europako beste herriekin ere. **Ekonomiarekin zuzenean lotuta dago aitakoa?**

EAEn beste ikuspegi bat garatu beharra dago. Garapen jasangarria: orain arte egindakoak ingurumenari ez dio errespeturik, eta barne-demokraziarik ere ez du. Ez du bermatzen gainera, publikoaren presentziarik. Hutsegite nabarmenaren artean daude Bermeoko La Gaviota, La Naval, Bangkok-Wilcox... Estrategia desberdinarak dira gureak: garapen jasangarrian oinarrituta, luzerako aterapeak eskainiz, ez epe laburrean.

Ingurumena aitatzen duzu.

Ingurugiroa errespetatuz, gizaritari men eginez eta beharrien arabera eta adar publiko bermatuz aritzea, horiek dira gure oinarri.

Eta hizkuntza, hezkuntza moduko gaietan, zer?

Euskara da ardatz. Egin denak gabezia izugarriak ditu: zerbitzu publikoetan ez da behar bezala garatzeko aukerarik eman: 25 urte agintean eta euskaraz egin nahi duenak ezin dezake lortu. Unibertsitatean, lanbide ikasketetan, baltantzea ezezkorra da guztiz. Helebitasunari ez diogu beldurrik, bestalde, herria baita euskara aurrera aterako duena.

Lurraldetasuna nola landuko duzue?

Hasiera-hasieratik Euskal Herriaren erabaki esparru desberdinak daudela esan dugu: maila desberdinean, indar politikoaren arteko korrelazioaren arabera, erritmo desberdinean doazenak. EAE erabaki esparrua den heinean, aitortua ez ezik, erabaki hori gauzatu dadin bulkatu behar dugu, abertzaleok herri bakarraren defentsa egin behar dugu, Euskal Herriko indar politikoa ezkerretik bezala, esparru desberdinetatik, erritmo desberdinetan eta demokrazian oinarrituta. Erabaki ahalmena eskuratu behar dugu lehendabizi. Hau da Madrili irabazi behar zaiona, bide zibil eta politikoa soiletatik jokatuz.

Hizpide ditugun hauteskunde haueetan bi taldek ez dute parte hartzerik.

Ez-adostasun osoa du Aralarrek horrekiko. Gurea izan da Hautes Batzordearen aurrean helegitea jarri duen alderdi bakarra. Uste eta itxaro dugu, bestalde, aterapeko guztiaz etortzeko. Defizit demokratiko handia dago: hainbeste herritar ordezkariarik gabe, baina baita ere bizkartzainekin joan behar dutenena, egoiztan erasoak jasaten dituztenena... Ezin daiteke bat bera ere ahaztu. Garbi dagoena da, legezaren kasuan, hori egin dutenena dela erantzukizun osoa, hau da PP-PSOErena. **Horren aurrean zer neurri hartu ditu, edo hartuko ditu Aralarrek?**

Elkarrizketarako beti prest gaude. Oraingoz ez zaigu deus eskatu.

Konponbidearen legealdia izanen omen da, diotenez.

Ibarretzek 18rako diona, axalergia da, botoak jasotzeko esaldi subliminal eta elektoral hutsa. EAJ-EAren programak ez du konponbiderako oinarriarik, kontsulta ez duelako zehazten. Trikimailua da, izanen dela diote, baina nola izanen den ez. Ezker abertzale politikoa eraginkorra beharrezkoa da, eta hori da, Aralar.

Mezu bat adierazi, esaldituko batean.

Aralar da, EAEn erabakitzeke ahalmena eta garapen sozialearen aurrerapena bermatzen duen indarra.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant. Zabalaretta 1

(Tolosa). 943 673 849

Larraia. Elbarren 95 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Iddea. 687 41 00 22

anoeta-idea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da arratsaldeetarako. Telefonoa: 649 51 34 87.

Mekanikoa. Mekanikoa behar da Tolosaldean nekazal makinak konpontzeko. Bidali kurrikuluma eta argazkia: DV, Nafarroa etorbidea, 5, 1. 20.400 Tolosa.

Ref. 1015.

EUSKARA ▶

«Tolosak ere hiri euskalduna izan nahi duelako», lanean

'Tolosa, hiri euskalduna' kanpaina aurkeztu du Galtzaundi Euskara Taldeak; «euskararen erabileran sakontzea eta kaleko giroa euskalduntzea» du helburu

LEIRE MONTES

«Eraikinak arkitektoak bezala, euskarak bidegileak behar ditu». Hala ekin zioten Galtzaundi Euskara Taldeko zuzendaritza batzordekoek, atzo, Tolosa, hiri euskalduna kanpainaren aurkezpen ekitaldiari, Kultur Etxean. «Euskararen normalkuntzan oraindik ere zer egiterik» badagoelako, euskararen erabileran sakontzeko kanpainari ekin dio taldeak.

«Oinarri sendoak behar dira aurrera egiteko, eta Tolosaldean urteotan ezartzen ari direnak nabarmendu beharrekoak dira. Euskararen normalkuntzan lan handia egiten ari dira elkarteak, erakundeak, merkataria eta abar. Ez da eremu bakarra, gainera, gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ekimenak ere ez baitira falta. Euskararen erabilera erabat finkatuta dago eskolan, edota etxean. Baina ezin dugu auto-satisfakzioan erori. Zergatik ez lanean? Eta zergatik ez kalean?», galdegin zuen Nora Olano Galtzaundiko euskararen normalizatorako teknikariak.

Kaleko giroan gorabeherak «nabari» direla azaldu zuen Olanok. Gauzak horrela, behar horri erantzun eta kaleko giroa euskaldundu asmoz jaio da Galtzaundiren kanpaina berria.

Hiru ardatz

Angela Alamo Galtzaundiko kultur dinamizatzailearen esanetan, «Tolosa, hiri euskalduna kanpainak hiru ardatz izango ditu»:

Batetik, sentsibilizazio kanpaina jarri dute abian Euskara Taldekoek: herriko dendetan, tabernetan eta saltokietan kanpainari buruzko informazio karpeta banatuko dute. Leku horietan Tolosa, hiri euskalduna dioen pegatina ikusgai izango da aste honetatik aurrera. «Dena den, sentsibilizazio kanpaina hau hasiera besterik ez da izango», adierazi zuen Alamo.

Datorren astean, esaterako, enpresariatzat eta merkatarientzat «interes handiko» bi hitzaldi antolatuko dituzte. Hitzaldiak dira, hain zuzen ere, kan-



Aurreko lerroan: Angela Palomo (ezkerrean) eta Nora Olano; atzean, ezkerretik eskuinera: Jon Ander Ubeda, Asier Tejeria, Emeterio Zaldibia eta Zigor Agirrezabala, atzo, Kultur Etxean. L. MONTES

KANPAINA ▶ EKITALDIAK

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatutako Tolosa, hiri euskalduna kanpainak hiru zutabe ditu: sentsibilizazio kanpaina, hitzaldiak eta kultur ekitaldiak.

HILAREN 19A, ASTEARTEA

20:00. *Euskara planak lan munduan* izeneko hitzaldia eskainiko du Emun kooperatibako Ibon Usarraldeak, Kultur Etxean. Enpresariak dago zuzenduta saioa.

HILAREN 20A, ASTEAZKENA

20:00. *Euskara planak*

pairen bigarren ardatza. Asteartean eta asteazkenean izango dira, 20:00etan, Kultur Etxean.

Kultur ekitaldiak dira hirugarren zutabea. Maiatzaren 6tik 8ra, era guztietako ekitaldiak iragarri dituzte Galtzaundi Euskara Taldekoek: dantza, bertsolaritza, musika, jostaketak, afaria... Denetik izango da asteburuan aukeran herriko kaleetan. Jarduerak adin guztietakoentzat direla azpimarratu du, era berean, Olanok. Gainera, tolosarrak kanpainare-

merkataritzan izeneko hitzaldia, Kultur Etxean, Debagoieneko Aintzane Lasaren eskutik. Merkatariei eta denda txikien jabeek dago gehienbat zuzenduta hitzaldi hau.

MAIATZAREN 6A, OSTIRALA

22:30. Juan Antonio Urbeltzen Argia dantza taldeak *Pas de Basque* euskal dantzen ikuskizuna eskainiko du, Leidorren.

MAIATZAREN 7A, LARUNBATA

16:00-19:30. Haurrentzat

kin bat egitera eta festa giroan murgiltzera animatu ditu: «Herriarren parte-hartzea da hemen garrantzitsua. Tolosak ere hiri euskalduna izan nahi duelako».

Kanpainaren bukaera gisara, Herri Urrats-era joateko deia egin dute Galtzaundikoek maiatzaren 8rako. Ohi bezala, autobusa antolatuko dute. Izena maiatzaren 3tik 6ra eman beharko dute joan nahi dutenek, Euskara Taldearen egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6), 17:00etatik aurrera.

puzgarriak eta euskaraoeka, Plaza Berrian.
19:30-21:00. Anjel Mari Peñagarikano, Xabier Silveira, Amaia Agirre eta Bixente Gorostidi bertsolarien emanaldia, Abastos plazan.
21:00-00:00. Afari herrikoia, trikitilariak alaituta, Abastosen. **00:00etatik aurrera.** DJ festa, herriko tabernetan.

MAIATZAREN 8A, IGANDEA

Herri urrats. Galtzaundi Euskara Taldeak autobusa antolatuko du Herri Urratsera joateko.

ERLIJIOA ▶

Sendotzako sakramentua Santa Marian

Gaur, 19:00etan, 21 gaztek Sendotzako sakramentua hartuko dute, Santa Marian. Parrokiakoek jende guztia gonbidatu dute elizkizunera.

ZIKLOTURISMOA ▶

89 kilometroko irteera, bihar, Marraskilorekin

Marraskilo zikloturista taldeak beste irteera bat antolatuko du biharko. Tolosa-Zegama-Otzaurte-Tolosa 89 kilometroko ibilbidea osatuko dute zikloturistek. 09:00etan finkatu dute irteera ordua, taldearen egoitzaren aurrean (Berazubi auzoa).

HEZKUNTZA ▶

Informazio bilera gurasoentzat Orixen, etzi

Etzi, astelehena, Alberto Ariño orientatzaileak informazio hitzaldia eskainiko die, Batxilergoari eta Heziketa Zikloei buruz, Orixeko DBHko 4. mailako ikasleei. 19:00etan hasiko da saioa, institutuko 1. zikloko liburutegian.

MUSIKA ▶

Tolosako Orfeoien emanaldia

Tolosako Orfeoien Mozarten *Requiem*-a interpretatuko du bihar, 19:30ean, Hernaniko parrokiari, Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean. Amaia Arberas sopranoak, Jon Plazaola tenoreak, Marife Nogales kontraltoak eta Jesus Garcia Arejula ba-xuak ere hartuko dute parte.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa), Garaje itxia Plaza Zaharran.
Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m², Berritua.
Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean. Garajea aukeran
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Amezketak), 3 logelako pisua, Altzari eta garajearekin.
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean eta Araba Etorbidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

MUSIKA ▶

III. Akordeoi Topaketa egingo dute bihar Beotibar pilotalekuan

13:00etan eskainiko dute kontzertu nagusia 350 soinujolek

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udala Musika Eskolak, Tolosako Udala eta Hauspoz, Euskal Herriko Akordeoi elkarteak antolatuta, III. Akordeoi Topaketa egingo dute bihar Beotibar pilotalekuan. Antolatzaileren esanetan, «Euskal Herriko akordeoi ikasleak elkarrekin lan egitea, elkar ezagutzera eta jendeari egindako lanaren berri ematea» da topaketa horren helburua, asko eta asko direlako bateko eta beste-ko eskoletan urte osoan zehar musika tresna hori behar bezala jotzen ikasteko buru-belarri aritzen diren ikasleak.

Euskal Herri osoko 26 musika eskolek egingo dute bat biharko topaketan: «Guztira, 350 akordeoijole inguru etorriko dira herrira, eta horiekin batera jardungo dute 200 koralistak, perkusioaz eta teklatuaz lagunduta». Soinu-jole horien guztien artean Tolosako hainbat taldeetan jarduten duten eskualdeko ikasleak ere ariko dira, eta emanaldia Tolosako erraldioen eta buruhandien konpartsak, Laskorain ikastolako abesbatzak, Hodei Truk abesbatzak eta Udaberri dantzari taldeak borobilduko dute.

Goiz osoan akordeoia jotzen jardungo badute ere, 13:00ak aldera eskainiko dute 350 soinujolek kontzertu nagusia. Parte hartuko duten musika eskola guztietako ikasleek pieza berak ikasi behar izan dituzte topaketarako, eta «horrela egin dugu zilegi musikari gazte guztiek batera jo ahal izatean», diote Hauspoz elkarteak kideek. Bihar arte ez dute guztiek batera entseगतzerik izango, baina

EGITARRAUA ▶

09:30. Musika eskolei harrera.

09:45. Entsegu orokorra parte-hartzaile guztietan.

11:30. Indarberritzea.

12:00. Kalejira herrian zehar taldeetan banatuta.

13:00. Kontzertua.

14:00. Alkatearen eta kultur zinegotziaren ongetorria.

antolatzailerek kontent dira hala ere, «emanaldiak ondo irten-goto duelako».

Kalejira ezberdinak

Kontzertu nagusiaren aurretik, baina, taldeetan banatujo dituzte parte-hartzaileak musika eskolaren arabera, eta herrian zehar kalejira ezberdinak burutuko dituzte. Isidro Larrañagako ikasleak gidari dituztela, Burlatako, Eibarko, Oñatiko eta Xambela musika eskoletako ikasleek San Frantziskotik irten-goto dute, zezen-plaza, Araba eta Foruen etorbideak zeharkatuz, Triangulora iristeko. Bigarren taldea Loatzokoez zuzenduko dute. Haiekin batera ariko dira Irungo, Berako, Lekeberriko, Hondarribiko, Sebastian Albero eta Victor musika eskoletakoek: Foruen etorbideetik irten eta Lizardi plaza eta Zumalakarregi kalea zeharkatuko dituzte, Trianguloraino.

Tolosako musika eskolakoen aginduetara, Triangulotik atera eta Korreo, kale Nagusia eta Zerkausia zeharkatuta Trianguloran bukatuko dute Barañaino, Andoaino, Noaino eta Soinu Alai eskoletakoek.

Laugarren taldeak Lezokoak izango ditu gidari, eta Triangulotik Arostegieta kalera, plaza Berrira eta Rondilla kalera joango dira Pablo Sarasate, Berriozar, Kithara, Victor eta Zizur musika eskoletakoak, eta Gernikako Arbolen lorategitik atera, eta epaitegi ingurutik San Joan kalera, Euskal Herria plazara eta Triangulora joango direnak Hernanikoak, Lakuntzakoak, Oriokoak eta Mutrikuakoak izango dira, Elgoibarkoen gidaritzapean.

Beran (Nafarroa) izan zen I. Akordeoi Topaketa 2003ko martxoan. Gipuzkoako eta Nafarroako 15 musika eskolako 300 akordeoijole aritu ziren herrian zehar egun hartan. II. Topaketa, berriz, Barañain (Nafarroa) izan zen 2004ko martxoan, eta 200 akordeoijole gora biltzea lortu zuen; baita 150 koralista, 11 dantzari eta 7 perkusiojole ere, guztien artean 380 lagunek orkestra eta abesbatza osatu. Gipuzkoako eta Nafarroako 30 musika eskolako ordezkariek izan ziren II. Topaketa hura antolatzeko ardura hartu zutenak. Antolatzailerek gogoan dute «oso eguraldi txarra» egin zuela egun hartan, eta soinu-joleek «komerriak» izan zituztela herrian zehar kalejira behar bezala egiteko, baina, hala eta guztiz ere, «egun arrakastatsua» izan zela diote.

Eguraldiak laguntzen badu, halakoa izango omen da biharkoa ere. Gainerakoan, «aldaketak egon daitezke kalejira ezberdinen ibilbidean, baina ekitaldi nagusia bere horretan mantenduko dugu». Ekitaldia irekia da herritarrentzat.

ZESTA-PUNTA ▶



Urbistondo eta Rezola, Cabanillas Txapelketa irabazi ostean. HITZA

Cabanillas Txapelketa irabazi du Beotibarrek

Atzelari onenaren saria Iñaki Rezolak lortu du; Urbistondok jardun zuen aurrelari gisa

I. ETXEBESTE

Beotibar zesta-punta taldekoak bolada onean dira. Eskolen arteko Cabanillas Txapelketaren XVIII. edizioa irabaztea lortu dute berriki Nafarroako izen bera duen herrian, Zumaiako, Noaino, Bartzelonako, Donostiako, Gasteizko eta Cabanillaseko jokalarien aurka lehiatuta. Martxoaren 26an egin zuten finalerdietara sailkatzeko lau partiduak Tolosarreko Cabanillaseko Jai Alai B taldearen aurka jardun zuten, 30-12ko emaitzarekin irabaziz, eta, hortaz, erraz lortu zuten finalerdietara sailkatzea. Igande goizean izan ziren finalerdietako partiduak, eta Beotibarreko jokalariei Donostiaren aurka aritzea egokitu zitzaizen. Erraz irabazi zuten hura ere: 30-16.

Urbistondok eta Rezolak osatutako bikoteak egin zuten Beotibarren aldeko lana final handian. Zumaiakoak aurkari zituztela, maila handiko jokaldiak egin zituzten tolosarrek, eta zumaiarrak ez ziren atzean geratu. Tentsio handikoa izan

omen zen norgehiagoka; orduan ere Beotibar taldekoak nagusi: 30-26ko emaitzarekin irabazi zuten jokalariek gazteek.

Finala irabazi ez arren, Zumaiako aurrelariari eman zioten txapelketa aurrelari onenaren saria, atzelari onenaren saria Beotibarreko Iñaki Rezolari eman zion epaimahaiak eta errebotatzaile onena Noaino Cristian Etxeberria izan zen. Cabanillas B eta Bartzelona taldekoek izandako «zorte txarra» nabarmentzekoa da, biei ala biei bi talde onenen aurka aritzea egokitu zitzaielako kanporaketetako zozketan. «Bestela, postu hobe lortuko zuketena».

Bestetik, amaitu da Udaberri Txapelketa, eta Beotibar taldekoek irabazi dute hori ere. Joan den larunbatean jokatutako finala Donostiako Baldan. Josu Trabazos eta Jose Mari Gonzalezek mendean hartu zituzten Zumaiakoak. Talde hori izan da indartsuena sailkapen fasean; «gure mutleak estu hartu eta menderatzea lortu zuten». Emaitza: 35-33. Beotibar txapelketa.

hitza

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketatutako **UZTARTZA aterpetxea** - **jatetxean 4 lagunentzako afari eder baten** irabazlea:

MILAGROS ITURRIOZ BALDA (IRURA)



Tel.: 943 69 34 81 • ADUNA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ANOETA ▶

Bi bilera deitu ditu Udalak herriko festak antolatzeko

Herriko artisten erakusketa eta herri kirolei buruzkoak izango dira bilerak

I. GARCIA

Anoetako Udalak bi bilera antolatu ditu etzi, astelehena, herriko festen inguruan. 18:30ean hasita, udaletxeko bideo gelan, herriko artiste egiten zaie deialdia. Festetan herriko artisten lanak ikusgai jarri nahi ditu Udalak. Bilera erakusketaren inguruko lotura guztiak egiteko asmoa dago. Bilera horren ondoren, 19:30ean udaletxean ere, herriko festetan egingo diren herri kirolen inguruko bilera egingo da, azkeneko loturak egiteko.

Bestalde, Udalak deialdia egin du herriko festetako buruhandi eta erraldoiekin atetzeko prest dagoen jendea eskatuz. Interesaturik dagoena, izena eman behar du udaletxean hilaren 22a baino lehen. Jendea hautatzeko garaian, lehentasuna emango zaie anoetarrei eta esperientzia baloratuako da.

Beste betebeharrak bat osatzeko beharra du Udalak herri festetarako, hau da, algozilaria laguntzea zeregin desberdinetan (kioskoak montatzen eta desmontatzen, aukiak mugitzen, kaleak garbitzen...). Maiatzaren 21etik 29ra izan dira lanegunak eta izen-ematea apirilaren 22a arte egin daiteke.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

Kuttuna haur eskola zabaldu dute

Maiatzean izena emateko epea irekiko da irailetik aurrera haurrak eramateko



Haurrek txoko guztiak baliatzen dituzte jolasteko. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Zizurkilaren irekita dago Kuttuna haur eskola Pedro Mari Otaño eskolaren eraikin berdinean, bi urte arterako haurrentzako. Zizurkilgo Udalak eta Partzuergoak jarri dute abian. Egun sei haur daude eta datorren hilean epea irekiko dute irailetik aurrera haurrak eraman nahi dituzten gurasoek izena emateko. Maiatzaren 3tik 18ra izango da aukera hori, 943 69 41 49 telefonora deituz.

Egun Kuttunan bi arduradun daude: Aloña Arruarte eta Oihana Beristain irakasleak. Goizeko 7:30etik 18:30era dago irekita haur eskola.

Gehienez haurra zortzi ordurako eraman daiteke eta gutxienez 16 aste beteta izan behar du bertara eramateko. Tarifei dagokionez, bi daude: 5 ordu edo gutxiagorako eramaten bada haurra, hilean 135 euro ordaindu behar dira; bost ordutik aurrera hileko 180 euro ordaindu behar dira.

Haur eskolan jarraipen osoa egiten zaie haurrei bai eskolako orduetan bai etxekoetan ere. Egunero orri bat betetzen dute bi irakasleek haur bakoitzarekin (loaldia, bazkaria, merienda, eguneko jarrera...) eta antzeko datuak bete behar izaten dituzte gurasoek eskolatik kanpoko orduetan.

VILLABONA ▶

Kloratita eta Dubet gaur Gaztetxean

Villabonako Onddo Gaztetxean kontzertua emango dute bi taldek gaur. Kloratita eta Dubet musika taldeen emanaldia gaueko 22:30ean hasiko da. Sarrerak 3 euro balioko ditu eta lortutako dirua Batasunaren kanpainareko bilduko da.

VILLABONA ▶ TXIRRINDULARITZA

Hirigunea itxiko da txirrindu probagatik

Irrintzi elkarteak gaurko antolatutako haurrentzako txirrindulari lasterketak direla eta, Villabonako hirigunea (Berria, 1etik elizarraino) itxita egongo da 16:30etik 18:00ak arte. Halaber, Udal-tzaingoak beren ibilgailuak eremu honetan aparkatuta dituzten guztiak jakinarazi nahi die ezin izango dituztela mugitu ordu horietan. Beraz, ibilgailua erabili behar izanez gero, lasterketaren ibilbidetik kanpo aparkatzea gomendatzen da. Autobus zerbitzuari dagokionez, Tolosara doazenak geldituko dira burnizko zubiko errotondan, kiroldegian eta Arroa, 27an, eta Donostiara doazenak, berriz, elizan bakarrik geldituko dira.

ZIZURKIL ▶

Erakusketa kolektiborako deialdia

Artearen inguruan antolatu da Maiatza Saltsan 2005 eta deialdia egiten Udalak Zizurkil eta inguruko herrietakoak izanik, batik bat arte ederrak ikasten ari diren pertsona guztiak, Atxulondon maiatzean antolatuko den erakusketa kolektiboan parte hartzeko. Mota guztietako lanak onartuko dira (eskultura, margoa, grabatuak...). Egile bakoitzak obra kopuru mugatua aurkeztu ahal izango du espazio faltagatik. Informazio gehiago udal bulegoetan (943 69 30 66). §

VILLABONA ▶

Loatzo eskolaren kontzertua etzi Gurea aretoan

Loatzo musika eskolak kontzertua emango du etzi, astelehena, Villabonan. Zegamako Tobera musika eskolarekin batera izango da emanaldia. Kontzertua 18:30ean hasiko da eta Gurea antzokian egingo dute bi musika eskolek emanaldia.

VILLABONA ▶

'Cocidito madrileño'-ren bi emanaldi Gurean

Cocidito madrileño antzeslan ezaguna izango da apirilaren 22an Villabonako Gurea aretoan. Euskal Herrian zehar arrakasta handia lortzen ari den antzezlanak Hasieran emanaldi bakarra iragarritako bazegoen ere, azkenean bi emanaldi egingo ditu Glu Glu antzerki taldeak, bata, 20:00etan eta bestea, 22:30ean. Bi emanaldietarako sarrerak Gurea aretoko leihatilan salduko dituzte etziatik aurrera. Sarrerak erosteko ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da.



ALEGIA ▶ KULTURA



Txintxarri txiki abesbatzaren partaideak aurretik eskainitako beste emanaldi batean. HITZA

Txintxarri txikikoek kontzertua eskainiko dute bihar Katalunian

Atzo goizean abiatu ziren abesbatzako partaideak Begues herrira; bihar 12:45ean eskainiko dute emanaldia

NOELIA LATABURU

Alegiako Txintxarri txiki abesbatzako gaztetxoek kontzertua eskainiko dute bihar, 12:45etik aurrera, Kataluniako Begues herriko elizan. Atzo goizean abiatu ziren autobusez txintxarriak, Idoia Iraola tolosar zuzendariaren gidaritzapean. Hiru egun egingo dituzte gaztetxoek kataluniar lurraldeetan eta turismoa egiteko ere erabiliko dute egonaldia, eta Bartzelona bisitatuko dute, besteak beste.

Biharko kontzertuaren ekimena Beguesko Montau abesbatzarekin Txintxarri abesbatza kultur elkarteak duen harreamanetik sortu da eta Montau Haur abesbatzak ere hartuko du parte Alegikoen kontzertuan. Hamar kantuz osatutako emanaldia prestatu dute Txintxarri txikikoek;

hautetatik gehienak euskaraz eta katalanez abestuko dituzte, Javier Busto hondarribitarren *Mantxa Pio*. Alain Perpetuek harmonizaturiko *Aldapeko*. *Jo i un pastor* Kataluniako abesti tradizional edota Arico Juniorren *Bandinha da vila kantu* onomatopeikoa, esaterako. Abestik guztiak ere Idoia Iraolak zuzenduko ditu, musika hezkuntzan diplomatua den gazteak.

Orain dela bost urte hasi zen bi abesbatzen arteko harremana, Montau abesbatza Euskal Herrira etorri zenean, hain zuzen; orduan Alegiako San Joan bataiatzailearen elizan eskainitako emanaldian, haien aho-ahoretatik eta doinuak entzuteko aukera izan zen. Hiru urte beranduago Alegiako helduen abesbatzakoei egin zuten bidaia Kataluniako Begues herrira. Herri hau Bartzelona hiriburuko

orduerdira dago eta 5000 biztanle inguru ditu.

Txikiak, 14 urte kantuan

Alegiako abesbatzak herriko biztanleak herri hizkeran izendatzeko erabiltzen den goiti-zen, *txintxarri*, jaso du izen gisa. Hamalau urte daramatza Txintxarri txiki abesbatzak kantuan. Txikiak ekimen hau Txintxarri kultur elkarteak proposatu zuen eta, horren ostean, helduen abesbatzaren harrobia bilakatu da. Zazpi urteko hamabost urte bitarteko neska-mutiek osatzen dute koru hau. Hainbat zuzendari izan ditu urte hauetan guztietan zehar abesbatzak, gehienak alegiarrak gainera. 2001. urtetik aurrera, berriz, aipatu Idoia Iraolak hartu zuen berrogei urte hauek zuzentzeko ardura.

TOLOSA ▶ KIROLA

Buzoia Uzturren, Ortiz eta Berrioren omenez

1969ko urtarrilean Bulnesko Naranjoan bizia galdu zuten bi mendizaleek

ERREDAKZIOA

Ramon Ortiz eta Patxi Berrio mendizaleek bizia galdu zuten 1969. urteko urtarrilean, Bulnesko Naranjoa eskalatzen ari zirela. Bi mendizaleen hauen omenez buzoi berri bat inauguratuko da Uzturreko tontorrean apirilaren 17an, igandea, eta beste hainbat ekitaldi ere antolatu dira datozen egunetarako.

Datorren asteartean Oargin bilera izango da 20:00etan, azken xehetasun guztiak zehazteko. Bi mendizaleak salbatzera atera ziren beste mendizaleek parte hartuko dute bertan. Apirilaren 13an, asteazkenean, 20:00etan, eskaladako proiektio bat eskainiko

da Oargin, Asier Izagirrek aurkeztua Pico Urriello eta Txileko Torres del Brujori buruz. Datorren asteko astelehenean ostiralera, gainera, argazki erakusketa izango da ikusgai Oargin.

Igandean omenaldia burutuko da goizetik. 11:00etan meza egingo dute Izaskungo ermitan, Patxi Berrio eta Ramon Ortizi eskainia egongo dena. Eguerdiko 13:00etan, berriz, bi mendizaleen omenezko buzoi berriaren inaugurazioa burutuko da, Uzturreko tontorrean. Ondoren, bazkaria izango da bertan, norberak berea eman beharko duelarik. Hala ere, eguraldiak lagunduko ez balu Oargin egingo litzateke.

TOLOSA ▶ KIROLA

Sanjoanetako bateletan parte hartzeko deialdia

Dagoeneko 20 batel ari dira prestatzen eta izen-ematea maiatzaren 31 artekoa da

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubak (TAK) herenegun 2005. urteko Tolosako San Joan jaietako batel estropaden inguruko lehen bilera orokorra. Azken aldian bateletan entrenamenduan dabilen taldeak Oriabaian barrena ikustea ohiko bilakatu da eta dagoeneko hogeitau batel eman dute izena, baina oraindik gehiagori leku emateko prest dago Tolosaldeko Arraun Klubak; hori dela-eta maiatzaren 31 arteko epea jarri du izena emateko, beraz, oraindik batela osatzeko gogoz dagoen herri, elkarte, entitate, norbanako edo bes-

telakorik, agertu daiteke informazio eske Tolosako Zerkaukiko instalazioetara, iluntze aldera.

Denetariko batelek eman dute izena sanjoanetako estropadetan parte hartzeko, TAK-ek jakinera eman duenez: aurreko garaian ibilitako elkarteak —Emendek, Izaskun, Gure Txokoa eta Txinparta—; herrietako ordezkariak —Ibarra eta Gaztelu—; ikastetxeak —Hiruki—; eta joan deneko bi urtetan arraunaren zuzperraldian gogotik lan egin duten lagunen beste hainbat —Bonerroenea, Dionisio Ormazabal-Ikatzka, Climavxv...—.

iragarki laburrak ▶

Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.

Haur Hezkuntza. Gaztelerako 106 leku, euskarako 52. Doako

informazioa. 943 43 41 27.

Fisioterapeutak. Laboratorioa, argizki teknikoak, erizain laguntzaileak. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak,

sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritzak. Informatu: 943 43 41 27.

Peoiak. Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,

Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.

Gidariak. Hurrena sartzeko: udalek, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.

Irakasleak. 465 leku libre. Hurrengo

deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

Udaltzainak. 25 leku libre udalekxetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Iruin, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Arau subsidiarioen tramitazioa gelditzea eskatu du Uztak

Herriko eragile guztien parte-hartzea defendatu dute, eta prozesua herri kontsulta bidez amaitzea proposatu



Uzta herri plataformako kideak, asteazkenean emandako prentsaurrekoan. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udaleko zinegotzi edo zinegotzigai izandako HB, EH, eta SAKO kideak, «gaur egun zinegotzi izan behar luketen» Uztako kideekin batera, Ibarrako Udalak herriko planeamenduko arau subsidiarioen tramitazioan hartutako jarrera salatu dute eta horren inguruan proposamen zehatz bat aurkeztu.

Hasi berria da arau hauen tramitazioa Ibarrako Udalean, eta aurre-dokumentuan jasotzen denez 750 etxebizitza berri egiteko aukera zabalduko luke. «Hauei, Beko-bide inguruan eraiki nahi diren 90 etxebizitzak, Euskal Herria kaleko 10ak eta Azkuen bukatzen ari diren 37ak gehituta, ia 900 etxebizitza berri eraikitzeak aukera zabalzten da Ibarran», eta gaur egun 1.600 etxebizitza daudela kontuan hartuta, herri eredu aldaketa izugarria ari direla proposatzen diote plataformakoek.

«Iñigo Garaialde Maiztegi jaunak, Ibarrako Udalarentzat egindako gizarte-hirigintza azterketan jasotzen denez Ibarrako herrian 190 etxebizitza berri beharko lirateke 2012 ur-

terako, eta 500 etxebizitza merkaturatzea proposatzen du tramitazio oztupoak eragindako eskaintzarik eza gaitzeko; baina, ez du esaten etxebizitza hauek guztiak berriak izan behar dutenik, etxebizitza hutsak merkatuan jartzeak adibidez, etxe berri kopurua murrizten lagunduko luke», azaltzen dute Uztako kideek. Udal arduradunek, berriz, 900 etxebizitza berri egiteko aukera eman nahi dute, eta alde hori handia dela gehitu zuten.

Txosten horretan jasotzen den beste datu garrantzitsua biztanleen bilakaera da, plataformaren arabera; era berean, 2012 urterako ez dela biztanlearen hazkuntzarik aurreikusten, eta ondorioz kiroldegia, Kultur Etxea, anbulategia, eskolak eta haur eskola bezelako zerbitzuak nahikoak direla pentsatzen dutela diote. Benetan, 900 etxebizitza berri egin eta biztanle hazkunderik ez dela emango sinestea oso zail egiten zaio Uzta plataformari, eta ondorioz, eskaintzen diren zerbitzuak ez direla nahikoak izango uste dute.

Plataformako arabera, udal arduradunek txostenaren interpretazio alderdikoia egi-

ten dute. «Bizi dugun hirigintza boom-az baliatu nahi dute; nekazal eremu bat hiriko lur bihurtzeak etekin izugarriak ekarriko dizkie gutxi batzuei; etxebizitzak, zenbat eta non egin nahi dituzten ikusi besterik ez dago onuradunak zein izango diren jakiteko, EA alderdiak azken urteetan aurkeztutako zerrendak aztertu, eta han aurkituko dituzue», adierazten dute, eta aldaketa hauek trafikoa gehitzea, aparkaleku arazoak handitzea, zerbitzuen kalitatea murriztea... ekarriko dutela azpimarratzen dute plataformakoek.

Bestalde, erabakia hartzerakoan Udala ez dela sindikatuekin, alderdi batzuekin ez eta gizarte eragileekin bildu azaldu Uztak.

Proposamen zehatzak

Honen aurrean, Arau subsidiarioen tramitazioa gelditzea, herriko eragile guztiek parte hartuko duten prozesu berri bat hastea eta horretarako eztabaida foro bat sortzea, eta azken erabakia ibartar guztiena izan dadin prozesua herri kontsulta bidez amaitzea proposatzen dute.

IBARRA ▶ KIROLA

Neurketa garrantzitsua du gaurkoan Ibarrak

Portugaletako Jarrillerosen kontra ariko da; irabazi egin behar du mailari eutsiko badio

I. TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldeak beste norgehiagoka garrantzitsu bat izango du gaur Portugaletan (Bizkaia), 20:00etan, Jarrilleros taldearen kontra. Pasa den asteko hil ala biziko proba gaituta, gogor ekin beharko dio gaurkoari ere talde bizkaitarra, Ibarrakoen moduan, maila mantentzeko ahaleginean ari baita. Jarrillerosekoek joan den astean Burlatan (Nafarroa) irabazi ondoren, sosegu hartu dute, baina gaurkoan Ibarrak irabaziko balu arriskuan lirateke berriro.

Horregatik izango da gaurko partidua bi taldeentzat oso garrantzitsua. Bizkaitarrentzat garaipenak 1. A mailan mantentzea esan nahiko luke; Ibarrakoez, berriz, beharrezkoak dira, oraindik ere, hiru puntuak. Horrela bada, jaitziera postuetatik at geratuko litzateke Ibarra, gaur Gas-

teizen Carnicerias Saenz eta Ateneak elkarren aurka jokatu duten derbiko emaitzak ez baitu eraginik izango. Ibarrak irabaziko balu, eta Carnicerias Saenz taldeak galdu, bi talde horien arteko aldea handitu egingo zatekeen. Burlatarekin parekatuko litzateke modu horretara, eta puntu batera luke Jarrilleros.

Ibarrak galduko balu, berriz, zaildu egingo litzateke beren egoera eta beste taldeen emaitzen menpe egongo litzateke. Argi dago, beraz, garaipena behar dutela gaurkoan ere ibartarrek.

Gaurko neurketaren inguruan azaldu behar da joanean Jarrilleros gailendu zitzaizola Ibarrari etxeko taldeak joko hobea egin arren. Ibarrakoez, baina, ez dituzte jokalaririk guztiak izango, baja baitira oraindik lehenengo astean jarduterik izan ez zutenak. Victorrek, ordea, jokatu ahalduko osatuta dagoelako.



Ederki igaro dute ludotekan izan diren gaztetxoek

LEABURU-TXARAMA ▶ Iratxe Arana belauntzarra eta Elixabet Eizagirre leaburuarra aritu dira Aste Santuko oporraldian Leaburun ludotekako begirale lanak egiten martxoaren 21etik apirilaren 1a bitarte. 2 eta 14 urte bitarteko 15 haur izan dira batz beste egun horietan. Ederki igaro dute, egunero ekintza ugari antolatuta baitituzte ludotekan: eskulanak, jolasak, ipuin kontaketak... HITZA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Xantoxen omenezko futbol txapelketan izen emateko epea gaur amaituko da, Gaztetxean, Ixkiñan, Etxeberrian eta Hilario Berrin, 30 eurotan.

Aitzo. Elordi elkartearen IX. urteurrena ospatzeko kantu afaria 21:00etan.

Orendain. Andres Urrutia notarioa eta Euskaltzaindiako lehendakariak, testamenduari buruzko hitzaldia emango du bihar 12:30ean udaletxean.

Tolosa. Bihar Gipuzkoako XXXI. Amuarrain eta IX. Barbo arrantza txapelketak Oria ibaiaren barrutian benjamin, alebin eta infantil mailetan.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Mikel Azpilikueta. Pinturak. Aranburun.

Tolosa. Aitor Ruiz de Eginio. Eskulturak. Aranburun.

Tolosa. Kubako ikasleen pinturak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramikak Saikin tabernan.

Tolosa. Kubako pintore baten margolanak Fronton kafetegian.

Tolosa. Jose Antonio Gorgojo. Pinturak. Sorron koadro dendan.

HAUTESKUNDEAK

Tolosa. Tolosa Bizirik-en ekitaldia plaza Zaharrean 12:00etan.

Tolosaldea. Bilbora eskubide zibil eta politikoen aldeko manifestaziora joateko autobusa 15:30ean aterako da Tolosako Triangulotik eta Lizartzatik.

MUSIKA

Tolosa. Mak musika taldearen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

Tolosa. Bihar Euskal Herriko akordeoi ikasleen III. Topaketa: 12:00etan kalejira eta 13:00etan doako kontzertua Beotibarren.

ZINEMA

Tolosa. *Robots* 19:30ean eta *Entre copas* 22:30ean. Leidor zineman.

Tolosa. *John Q* bihar 19:00etan Gaztetxean.

Pitxiak eta arraunlariak

'HITZA' ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Oporretan denetatik egiteko aukera aukera; batzuk kirola egiteko aprobetxatzen dute, besteek opariak erosteko

LANDAK ▶

Leire Zabala (Tolosa).

Landetan, Vieux Boucau-n dago aterata argazki hau, aurreko Aste Santuan. Denetarako denbora izaten da oporretan, baita erosketetarako ere. Jakina da zein gustukoak diren pitxiak batzuen artean. Argazkiok, eraztun batzuk dira. Oso koloretsuak. Motibo hori aukeratu du Leire Zabalak argazkia atera eta HITZA Argazki Lehiaketara bidaltzeko.



SORIA ▶

Idoia Arregi (Ibarra).

Batel estropadak modan daude Tolosaldean. Eta Ibarra zer esanik ez. Aste Santuko oporrek entrenatzen jarraitzeko aprobetxatu dute Ibarra gazte hauek. Sorian izan dira, Embalse de la Cuerda del Pozo lakuan, argazkian ikus daitekeen bezala. Paraje ederra dela ikus daiteke argazkian, atsekerako egokia.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Naroa Leonet Tadeo
(Amaroz). Gaur 5 urte.
Etxeko partetik.



URTE ASKOAN
Josu Galarza Cabanillas
(Amezketan). Gaur 11 urte.
Ibarra abuelo Pabloren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tarteak, ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!